

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala****Albaitaritzako Laguntzailearen plaza bat betetzeko hautaketa-prozesurako deialdiaren oinarriak.**

Iragarkia, Bilboko Udalarena; honen bitartez, Albaitaritzako laguntzailearen plaza bat (derrigorrezko euskarako 2. hizkuntza-eskakizuneko) lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko, aldi baterako enplegua finko bihurtzeko hautaketa-prozesu bereziaren oinarriak onartu eta hautaketa-prozesurako deialdia egin da.

Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariak, Alkatearen 2015eko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez eta Uriko Gobernu Batzordeak 2015eko ekainaren 13an hartutako Erabakiaren bidez bere gain utzitako eskumenak erabilita, 2018ko maiatzaren 18ko Ebazpena eman du hau xedatzeko:

«*Bat:* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127. artikuluan eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren Laugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoarekin bat etorruta, Bilboko Udalaren 2017ko Lan Eskaintza Publikoaren barruan Albaitaritzako Laguntzailearen plaza 1 (derrigorrezko euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna) lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko, aldi baterako enplegua finko bihurtzeko hautaketa-prozesu bereziaren oinarriak onartu eta hautaketa-prozesu horretarako deialdia egin da.

Bi: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal da Bilboko Uriko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita.»

Bilboko Udaletxean, 2018ko maiatzaren 18an.—Giza Baliabideen zuzendaria

**ALBAITARITZAKO LAGUNTZAILEAREN PLAZA BAT JABETZAN BETETZEKO
DEIALDIRAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK****Bat. — Eskainitako plazak**

Oinarri espezifikoa hauek eta Oinarri Orokorrek, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batekina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren Laugarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera, arautuko dute, Bilboko Udaleko aldi baterako enplegua finko bihurtzeko prozesu bereziaren barruan, Albaitaritzako Laguntzailearen plaza bat lehiaketa-oposizioaren eta sarrera libreko sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua. Plaza hori C taldekoa, C-1 azpitaldekoa da eta derrigorrezko euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna du; Administrazio Bereziak Eskalakoa, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoa, Eginkizun Berezien motakoa. C Taldeko Ordainsariak ditu eta 2017ko Lan Eskaintza Publikokoa da.

Lanpostu horretan bete beharreko eginkizun eta zeregin nagusiak:

- Ohiko laginak eta lagin ofizialak (albaitariaren laguntzarekin) jasotzea, ikuskatzaile-arduradunak ezarritako programaren arabera.
- Establezimenduetan era askotako egiaztapenak egitea: baldintza higieniko-sanitarioak, elikagaien manipulazioa, osasunaren arloko agiriak jaso...
- Elikagaien inbilitzazioa, bidezkoa bada, albaitari ikuskatzaileak konfiskatu ditzan eta, beharrezkoa bada, konfiskatutako produktuak kontrolatu eta suntsitzea.
- Elikagaien establezimenduen errolda egunean izatea.

Bi. — Baldintza bereziak

Honako titulu akademiko ofizialetako bat edukitzea:

- Batxilerra, Goi-mailako prestakuntza-zikloak edo baliokidea.

Oinarri Orokorretan ezarritako gainerako baldintzak beteta izatea (2016/12/20ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 240 zenbakia).

Hiru. — Azterketa-eskubideak

6,00 eurokoak izango dira.

Kopuru hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daiteke. Pasabide horretara sartzeko eskabide-orria bete behar da web orri honetan: www.bilbao.eus/e-Udala/EPE/Lan-eskaintza Publikoaren aplikaziorako sarbidea. Era berean, barra-kodea duen eskabidearen edo ordainagiriaren kopia jaitsi eta dokumentu horretan adierazita dauden Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztuta ordaindu daitezke azterketa-eskubideak.

Azterketa-eskubideak beti ordaindu behar dira eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Lau. — Eskabideak

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eskari ofiziala helbide honetan lor daiteke: www.bilbao.eus/e-Udala/EPE/Lan-eskaintza Publikoaren aplikaziorako sarbidea.

Eskariak helbide elektroniko horretan ezarritako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko dira.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskarian adierazi beharko da, behar bezala eta zerranda batean, baldintzak eta aurkeztutako merezimenduak betetzen direla. Ez da ziurtagiriaren kopiarik aurkeztu behar eskariarekin batera; izan ere, epaimahaiak edo Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak eskatzen dutenean ziurtatu beharko dira parte hartzeko baldintzak eta aipatutako merezimenduak.

Era berean, Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak erregistroko bulego txiki bat jarriko du Aznar eraikinean (Venezuela plaza, 2, 5. solairua), ordenagailuekin eta beste baliabide tekniko batzuekin, hala nahi dutenek eskaria aurkezteko erabil ditzaten. Era berean, interesdunei aholkuak emango zaizkie eskabidea behar bezala betetzeko.



Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, 20 egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapa-tuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan Udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko pertsonal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen kontrol edo azterketak egiteko.

Oinarri Orokorretako (2016ko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 240. zenbakian, argitaratutakoak) hamaikagarrena bertan araututako hautaketa-prozesuen ondorengo lan-poltsak egiteari buruzkoa da. Oinarri horren ondorioetarako, hautagaiak eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko aurka dauden: Izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Aurkako iritzia ez bada beren-beregi ematen, baimena ematen dela ulertuko da.

Bost. – Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian burua, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango dira. Horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egongo da derrigorrez.

Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta berezitasun printzipioan oinarritutakoa izango da; kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa eduki behar dute eta hautaprobetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez. Epaimahaiaren osaera orekatua izan beharko da, eta sexu bakoitzaren ordezkartza % 40koa izango da gutxienez, hori egoki ez dela justifikatzen ez bada, behintzat.

Epaimahaian euskararen jakite-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako kide bat egongo da, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, eta lehen aipatutako hiru kideei erantsiko zaie.

Sei. – Hautaketa-prozedura

Hautagaiak lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz aukeratuko dira. Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratu-ko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo. Prozesua osatzeko praktikaldia egingo da.

A) OPOSIZIOKO FASEA

Derrigorrezkoak eta baztertzailleak diren hiru azterketa egin behar dira oposizioan.

– *Lehen ariketa*: Zati bi izango ditu, bata bestearen ostean egingo direnak egun berean, Epaimahaiak atsedean tartea emanaz hautagaiei zatien artean.

Lehenengo zatia: idatziz erantzun beharko da epaimahaiak ezarritako test motako galdera-sorta bat (50 galdera) aurretik argitaratutako galdera-sorta batetik aterata; galderak erantzun anitzekoak izango dira, baina bakarria zuzena. Galderak deialdiaren Eranskinen lehenengo zatiko gai buruzkoak izango dira (1.etik 10.era). Epaimahaiak ezarriko du ariketa egiteko denbora.

Galdera bakoitzak lau erantzun dauzka, baina bakarria da zuzena. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat emango da. Erantzun okerrek eta erantzun gabe utzitakoek ez dute ez punturik gehituko ez kenduko. Epaimahaiak erreserbako galderak ezarri ditzake, hautatutako galderaren bat baliogabetzen denerako.

Lehenengo zati hau 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da.

Bigarren zatia: idatziz garatu beharko dira, 3 orduko gehienezko denboran, deialdiaren eranskinen II., III. eta IV. zatiko gai bi. Ariketa egin baino lehen Epaimahaiak 3 gai



proposatuko ditu eta hautagaiak bi aukeratuko dituzte, proposatutako gaiak eranskinetako zatietakoak hurrenez hurren derrigor izan behar ez dutelarik.

Bigarren zati hau 0 eta 15 puntu bitartean baloratuko da.

Ariketa hau 0tik 20 puntura kalifikatuko da eta gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

— *Bigarren ariketa*: Plazaren funtzioei lotutako kasu praktikoa bat ebatzi beharko da, epaimahaiak ariketa hasi aurretik proposatutakoa.

Ariketa hau 0tik 20 puntura kalifikatuko da eta gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

— *Hirugarren ariketa (euskarazko proba)*: Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1. artikulua.

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin beharko: HAAEren 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B-2 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagirien bat dutenek eta Euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta duten pertsonak. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Bilboko Udalarari hori horrela dela egiaztatu dezan aipatutako erregistroan.

Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Lehenengo eta bigarren ariketak derrigorrezkoak eta baztertzailak dira; 0,00tik 20,00 puntura kalifikatuko da lehenengoa eta 0,00tik 20,00ra bigarrena; lehenengo ariketan gutxienez 10,00 puntu eta bigarrenean gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Hirugarren ariketan, euskarazko proban, GAI edo EZ GAI kalifikazioa emango da.

Gehieneko puntuazioa.

Oposizio-fasean, gehienez ere, 40 puntu atera ahal izango dira.

B) LEHIAKETAREN FASEA

Oposizio-fasea amaitzen denean, fase hau gainditu duten hautagaiekin hasiko da lehiaketaren fasea. Oposizio-fasea gainditu duten hautagaiak eskabidean aurkeztutako eta behar den moduan egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, web orriaren argitaratutako iragarki batean jarritako epean. Oinarri hauetan azaldutakoarekin bat etorrita baloratuko dira merezimenduak. Ez da baloratuko bestelako ezein merezimendu. Deialdia EAOn argitaratu den egunera arte lortutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

1. Laneko esperientzia

A) Bilboko Udalean lanpostuari dagozkion eginkizunetan emandako denbora: gehienez 12,6 puntu, 0,70 puntu urteko edo 6 hilabeteko edo gorako zati bakoitzeko.

B) Beste herri-administrazio batzuetan lanpostuari dagozkion eginkizunetan emandako denbora: gehienez 3,60 puntu, 0,20 puntu urteko edo 6 hilabeteko edo gorako zati bakoitzeko.

2. Prestakuntza

Deialdiko baldintzetan jasota ez dauden titulazioak, betiere eskudun administrazioak onartutako balio akademiko ofiziala izan eta tituluak eman ditzaketen ikastegi publikoek edo pribatuak emandakoak, gehienez ere, 1,80 puntu, honela:

— Unibertsitateko gradua edo lizentziatura izatea: 1,30 puntu.

— Goi-mailako prestakuntza-zikloa edukitzea: 0,50 puntu.



Lehiaketa-fasean lor daitezkeen puntuak, guztira, 18 izango dira, gehienez ere.

Oposizioko azterketak amaitu eta lehiaketako merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, puntuazioaren arabera, hautaketa-prozesuaren fase biak batuta.

Zazpi. — Oposizioko eta lehiaketako faseen behin betiko kalifikazioa

Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketa edo/eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, Epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa gainditu duten pertsonen lortutako puntuazioen baturak ezarriko du hurrenkera. Pertsona horien kopurua ez da eskainitako plazen kopurua baino handiagoa izango (Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 32. artikulua). Epaimahaiak Udalburuari bidaliko dio zerrenda hori eta izendapenerako proposamena egingo du. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrak, ez beste ezertarako. Hala ere, zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, ez eta lanpostuaz jabetzekoa ere, Oinarri Orokorretako Hamargarren Oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Zortzi. — Agiriak aurkeztea

Oinarri Orokorretako hamabigarrenean ezarritakoren arabera egingo da.

Bederatzi. — Praktika aldia eta izendapena

Hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango da praktika aldia. Bertan izango dira Lehiaketa-Oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten hautagaiak; plazak bezain beste hautagai izango dira. Fase hori plaza dagoen sailean egingo da, gehienez ere sei hilabetez. Datak sasoz iragarriko dira.

Ebaluazioko prozedura jarraia izango da praktikaldian. Aldi horretan, hamabost egun natural baino gehiagoko ausentzia justifikatuak daudenean, egun solteetan edo jarraian, ebaluazioa eten egingo da. Kasu horretan, interesdunak aldi osoa bete beharko du.

Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen Erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko; era berean, alta emango zaie funtzionarioei aplikatzen zaien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktika aldian deskalifikatu arte.

Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak etengabe ebaluatuko dira praktika aldian.

Hautagaia gai edo ez gai kalifikatuko da eta beharrezkoa izango da gaitasuna lortzea hautaketa-prozedurako fase hau gainditzeko.

Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak ebaluatuko dira praktika aldian, bai ezaguera teknikoen aplikazioaren ikuspegitik, bai lan-ahalmenaren, erantzukizunaren eta ekimenen eta lantaldeetan jarduteko eta barruko eta kanpoko harremanetarako gaitasunen ikuspegitik.

Praktika aldia amaituta, Saileko zuzendariak hautagai bakoitzaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du eta bere ustez behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez adieraziko du. Txosten horiek hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaizkio, eta horrek, txostenak azterturik, praktiketako fasea gainditu duten ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, fasea gainditu duten hautagaiak izendatzeko proposamena egingo dio alkate udalburuari.

Hautagaien izendapena praktika aldiko edozein unetan utzi daiteke bertan behera, betiere hautagaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, saileko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuko epaimahai kalifika-



tzaileari eta horrek, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkateari.

Hamar. — Behin betiko izendapena

Behin betiko kalifikazioa eta hautagaien lehentasun-ordena ateratzeko, oposizio-aldiko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Izendapenak hautagaiei jakinaraziko zaizkie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan eta www.bilbao.eus/e-Udala/EPE/Lan-eskaintza Publikoaren aplikaziorako sarbidea argitaratuko dira.

Hamaika. — Lanpostuaz jabetzea

Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetuko dira eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen den baldintza bete behar dute; horretarako, 30 eguneko epea daukate, izendapena jakinarazi zaien egunaren biharamunetik aurrera.

Ezarritako epearen barruan, justifikatzeko moduko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egin diotela ulertuko da, kargua utzikotzat joko dira eta euren eskubide guztiak galduko dituzte. Horrelakoetan, udalburuak proposatuko du, betiere oposizioko ariketak gaindituta, ariketen eta merezimenduen faseetako puntuak batuta baloraziorik onenak lortzen dituzten hautagaiak izendatzea, kargu uztearen ondorioz deitutako lanpostu kopuruan tokia izanik. Hori guztiori oinarri hauetako zazpigarrenean adierazitakoarekin bat etorrira.

Hamabi. — Aurka egiteko bideak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikulua araberako, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal zaio hilabeteko epean Bilboko Gobernu Batzordeari, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da.

**ERANSKINA GAIAK****I. ZATIA. ZUZENBIDE PUBLIKOA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio nagusiak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Euskal Herriaren eskumenak: bakarrekoak, lege bidez garatzekoak eta betearaztekoak.
3. gaia: Udalerria. Udalaren antolaketa biztanle-kopuru handiko udalerrietan (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen X. Titulua).
4. gaia: Bilboko Udalaren antolaketa. Bere araudi organikoak. Osasun eta Kontsumo Saila: antolaketa eta eginkizunak.
5. gaia: Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eginbeharrak eta eskubideak. Ordainsariak. Diziplina-araubidea.
7. gaia: Azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa.
8. gaia: Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea. Aplikazio eremua eta xedea. Eskubideak eta betekizunak. Prebentzio-zerbitzuak.
9. gaia: Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. II. titulua. Datuen babesaren printzipioak. III. titulua. Pertsonen eskubideak. VII. titulua. Arau-hausteak eta zehapenak.
10. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa. Egitura eta printzipio orokorrak.
Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Aukera Berdintasunerako Bilboko Udalaren IV. Plana.
Berdintasunerako Bilboko Udalaren IV. Planari (2014-2017) buruzko gaiaren edukia Udalaren web orrian dago argitaratuta: (www.bilbao.eus >Udala>Udal Sailak> Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta jaiak<)

II. ZATIA

11. gaia: Udalaren albaitaritza arloko ikuskaritza elikagaien establezimenduetan: prestaketa, ikuskapenaren eremuak, ikuskapenerako akta-motak, aktak betetzea.
12. gaia: Elikagaien sanitatean eta kontsumoan zehatzeko eskumenari buruzko Ordenantza. Aplikatu beharreko eremua. Udalaren albaitaritzako ikuskaritza-zerbitzuen jarduketak.
13. gaia: Elikagaien sanitatean eta kontsumoan zehatzeko eskumenari buruzko Ordenantza. Bigarren titulua, II. eta III. sekzioak: osasunaren arloko arau-hausteak eta kontsumitzailea babestearen arloko arau-hausteak.
14. gaia: Elikagaien laginak jasotzea: Laginketarako teknikak. Lagin sinpleak eta lagin ofizialak. Laginketa zuzendua. Laginak jagotea. Laginak artatzea.
15. gaia: Autokontrolerako sistemak: Oinarri teorikoak. HACC/APPCCan oinarritutako autokontrola elikagaien establezimenduetan.
16. gaia: Ostalaritzako Autokontrolerako EAeko Plan Orokorra. Printzipio nagusiak. Oinarrizko erregistroak eta kontrolak.
17. gaia: Garbiketa-, desinfekzio-, desintsektazio- eta desratizazio-planak elikagaien establezimenduetan. Izurrite-motak eta horien kontrola.
18. gaia: Jantoki kolektiboak: Definizioak. Jantoki kolektiboen sailkapena, arrisku sanitarioaren arabera. Higiene eta osasunaren arloko eskakizunak, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko martxoaren 15eko Aginduaren arabera.
19. gaia: Txikizkako merkataritza: Higienearen arloko baldintzak eta sailkapena, Europar Batasuneko 852/2004 Araudiaren arabera.



20. gaia: Elikagaien salmentako aldi baterako ekitaldiak esparru publikoan: Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Ordenantzaren I. eranskinean jasotako arau orokorrak. Memoria sanitarioaren oinarritzko edukia.

III. ZATIA

21. gaia: Elikagaien manipulatuzaileen prestakuntza: bete behar dituzten baldintza nagusiak.

22. gaia: Elikagaien etiketak eta trazabilitatea: Nahitaezko etiketatzea. Trazabilitatearen kontzeptua.

23. gaia: Elikagaien kutsadura kimikoa: talde kutsatzaile nagusiak eta horien jatorria.

24. gaia: Elikagaietako mikroorganismoak: Horien jatorria. Horiei lotutako arriskuak eta onurak.

25. gaia: Elikagaietako mikroorganismoak: Mikrobioen hazkundera eragina duten faktoreak. Mikrobioak kontrolatzeko sistemak.

26. gaia: Kutsadura gurutzatuaren kontzeptua. Nola sortzen den. Arriskuak minimizatzekeo sistemak.

27. gaia: Elikagaien kontserbaziorako sistemak. Biltegitratzeko baldintzak, kasuan kasu.

28. gaia: Janari-alergia eta intolerantzia. Nahitaez jakinarazi beharreko alergenak. Kontsumitzailearentzako informazioa.

29. gaia: Haragia eta haragi-errotiak. Saikapena, kontserbaziorako baldintzak eta etiketatzekeo eskakizunak.

30. gaia: Ohiko kontsumoa duten arrainak, moluskuak eta oskoldunak: Saikapena, kontserbaziorako baldintzak eta etiketatzekeo eskakizunak. Freskotasun-maila ebaluatzea.

IV. ZATIA

31. gaia: Esnea eta esnekiak. Saikapena, kontserbaziorako baldintzak eta etiketatzekeo eskakizunak.

32. gaia: Arrautzak eta arrautzen errotiak. Saikapena, kontserbaziorako baldintzak eta etiketatzekeo eskakizunak.

33. gaia: Frutak eta barazkiak: Saikapena, merkaturatzeko arauak, kontserbaziorako baldintzak eta etiketatzekeo eskakizunak.

34. gaia: Animalien babesa Euskal Autonomia Erkidegoan. 6/93 Legea, Animaliak babesteko: Aplikazio-eremua, animaliak babesteko mekanismo nagusiak.

35. gaia: Txakurrak arduraz edukitzea. Betebeharrak, mugak eta debekuak.

36. gaia: Bilboko udalerrian Animaliak edukitzekeo eta babesteko Ordenantza. Aplikatu beharrekeo eremua. Arau-haustek eta zehapenak.

37. gaia: Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzea. Lege-esparrua. Era horretako txakurrak edukitzekeo betebeharrak bereziak.

38. gaia: Kaleko katuen koloniak. Arazoak. Kaleko katuak harrapatzekeo, antzutekeo eta askatzekeo programa.

39. gaia: Hiriko fauna udalerrian. Arazoak. Herritarren kexak erantzutea eta gestio-natzea.

40. gaia: Udalerrien eginkizun nagusiak animaliak zaintzen eta kontrolatzen. Aipamen berezia Animaliak Kontrolatzeko Zentroei.